


Mikroskopiopekoak

Nikon Small World 2022

Esku hau Madagaskarreko geko baten (*Phelsuma grandis*) enbrioiaarena da; 3 mm inguruko luzera du. "Lagin erraldoia da hori bereizmen handiko mikroskopiarako", dio Grigorii Timinek. Horregatik, Timinek 2 egun behar izan zituen irudia osatzen duten ehunka argazkiak ateratzeko". Genevako Unibertsitateko doktore Michel Milinkovitchen gidaritzapean egin zuen lan hori. Eta [Nikon Small World 2022](#) mikroskopia-irudien lehiaketa irabazi zuten irudi honekin.


Zian kolorean nerbioak, eta kolore beroagoetan hezurak, tendoiak, lotailuak, azala eta odol-zelulak. "Irudi hau, ederra bezain informatiboa da, bai ikuspegi orokor gisa, baita eremu jakin bat aztertzerakoan ere, egiturak maila zelularrean nola antolatuta dauden argitzen baitu", dio Timinek. "Nikon Small World lehiaketa aukera bikaina da natura maila mikroskopikoan zein txundigarria den partekatzeko, ez bakarrik komunitate zientifiko baten barruan, baita publiko orokorrarekin ere".

Irabazleaz gain, beste 91 irudi ere nabarmendu ditu lehiaketako epaimahaiak. Horietako batzuk ekarri ditugu hona.



ARG.: Grigorii Timin eta
Michel Milinkovitch (Suitza)

partekatzen





Kandelaren argizaritik askatzen diren
erre gabeko karbono-partikulak.
ARG.: Ole Bielfeldt (Alemania).


Lamproderma onddo lirdingatsua.


ARG.: Alison Pollack (AEB)



Giza zelulen zatiketa (mitosia),
zenbait fasetan. Kromosomak,
laranjaz, eta mikrotubuluak, zuriz.


ARG.: Andrew Moore (AEB).






**Bakterio-biofilma giza
mihiaren zelula batean**

ARG.: Tagide de Carvalho (AEB).



Euli bat kakalardo tigre
baten barailetan.
ARG.: Murat Öztürk (Turkia)





Giza koloneko Lieberkühn guruinen zeharkako ebakidura.

ARG.: Ziad El-Zaatari (AEB).

